

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako udal lanpostua (idazkari-kontuhartzailea) betetzea

Kontuan hartuta Lagran-Harana-Añana udal elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik geratu dela, egungo titularrak kargua utzi duelako, egokia da izapidea hastea egiaztatzeko ea estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionariorik dagoen, lanpostua aldi baterako betetzeko interesa duenik.

Horrenbestez, alkatetza honek

EBAZTEN DU

1. Prozedura abiaraztea Arabako Foru Aldundiari proposatzeko izenda dezala estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat Lagran-Harana-Añana udal elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan xedatutako moduetakoren batean.

2. Bost egun balioduneko epea hastea, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, estaturako gaikuntza duen edozein funtzionariok udalari idazki bidez adieraz diezaien lanpostua aipatutako artikuluetan xedatutako edozein eratan betetzeko interesa duela (behin-behineko izendapena, zerbitzu eginkizuna, metaketa). Egoera bakoitzaren barruan, merezimenduen baremo orokorraren arabera lehentasuna izango da.

Idazkia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da, baita helbide elektroniko honetan ere: alagran.delia@ayto.araba.eus.

Lanpostuaren ezaugarriak:

- Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea.
- Taldea: 1/A2.
- Eskala: estaturako gaikuntza.
- Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailletza.
- Destino osagarria: 26.
- Berariazko osagarria: 28.000,00 euro.
- Titulazioa: gradua edo baliokidea.
- Hizkuntza eskakizuna: 3.
- Derrigortasun data: 2020ko abenduaren 31.
- Destinoa: Lagran-Harana-Añana udal elkartea.

Lagran, 2024ko urriaren 21ean

Alkatea

URTZI GAINZARAIN GONZALEZ DE DURANA